

2019eko URTARRILAREN 19-20an

IRAUNPEN-ESKIA SOMPORTEN

Berriz ere elurretara goaz! Eta horretarako asteburu zoragarria antolatu dugu. Ez dago eskiatzen jakin beharrik, mailaren arabera osatuko baititugu taldeak.

EGITASMOA:

Urtarrilaren 19an, larunbatean, goizeko 06:00etan ikastolako aparkalekutik irtengo gara. Ledean geldiunetxo bat egin ondoren, SOMPORT eski estaziora iritsi, materiala alokatu eta eskiatzeko prestatuko gara monitoreek aginduta hainbat taldetan egokitu eta gero. Goiza eskiatzen pasatuko dugu. Eguerdian atsedena hartuz, bokata jateko geldituko gara. Arratsaldean, berriz, eskiatzen jarraituko dugu, pistak itxi arte. Gero, autobusa hartu eta Candanchun (Huesca) dagoen Valle de Aragón aterpera joango gara. Bertan, atsedean hartu ondoren afaldu eta lo egingo dugu. Igande goizean, gosariarekin indarberrituta, berriz pistetara joango gara. Goiz erdira arte eskiatuko dugu, atsedean txiki bat hartu, eta berriz eskiatuko dugu 14:00-15:00ak arte. Aldatu eta gero, zerbait jan eta autobusa hartuko dugu berriro Oiartzunera, eta 20:00ak inguru iritsiko gara.

ERAMAN BEHARREKOAK:

- Eskiatzeko: galtzerdi goxoak, mailak, kamiseta termikoa, txalekoa edo forru polarra, eguzkitako betaurrekoak, eskularruak eta zira aholkatzen dira. Aldatzeko arropa, eguzkitako krema.
- Raketekin ibiltzeko: neguko mendiko arropa.
- Larunbateko eta igandeko hamaiketakoak, bazkariak eta meriendak.
- Lo zakua, txankletak, dutxatzeko tresnak eta esku-oihala.
- Ordainketak izena ematerakoan egingo dira.
- Izena emateko azken eguna: Urtarrilaren 15a. (Aterpearekin egun batzuk lehenago itxi behar dugu pertsona kopurua).

BALDINTZAK:

1. Eskiekin edo raketekin ibili ahal izateko forfaiata derrigorrezkoa da.
2. 50 pertsonentzat dago lekua. Kopurua gaindituko balitz, zozketa bidez erabakiko da.
3. Mendi Taldearen urteko irteeren informazioa eta argazkiak www.haurtzaroikastola.eus.
4. Azken orduko ezustekoetarako: Imanol: 636 73 28 44

Jon: 649 42 72 31

Jone: 696 153 902

PREZIOAK:

AUTOBUSA*		FORFAITA		ESKI ALOKAIRUA		RAKETA ALOKAIRUA		PENTSIO ERDIA*	
IKASLEA	HELDUA	IKASLEA	HELDUA	IKASLEA	HELDUA	IKASLEA	HELDUA	IKASLEA	HELDUA
8€	8€	9€	15€	9€	12€	10€	10€	31€	31€

*Derrigorrezkoa



OHARRA:

Elurrik ez balego, Urtarrilaren 16an jakinaraziko genuke irteera bertan behera geratuko dela. Abisurik ezean, planarekin aurrera jarraituko genuke.

Hautzaro Ikastolako Mendi Taldea

